eguraldia

Jon Albisu

Gaurko iragarpena



Itsasoa

Kantauri itsasoko lehenengo 20 milietan, haizea nagusiki iparretik etorriko da 2ko indarrarekin, eta itsaskirria eragingo du. Ipar-partean, arratsaldetik aurrera, itsaskiko guneak izango dira, 3ko ufadekin. Bisibilitatea nahiko ona izango da, eta iparreko hondoko itsasoak metro bateko olatuak altxatuko ditu.

GAUR

Hodeiak eta ostarteak

Goiz-goizetik lanbroa eta behelainoa agertuko dira. Izotza ere ageriko da Piriniotan eta Euskal Herriko gainontzeko mendi inguruetan. Egoera antiziklonikoarekin egonkortasuna handitu, eta orduak aitzina egin ahala hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira ipar-partean eta mendi inguruetan. Barnealdean, berriz, eguzkia eta hodei altuak nagusituko dira. Ipar-ekialdeko haizea nahiko ahula izango dugu, eta azken orduetan norabide aldakorrekoa izango da.

BIHAR



Aroak aldaketa nabarmena izango du. Ipar-haizeak bultzatuta, arratsalderako fronte hotza iritsiko da Euskal Herrira, eta zeru hodeitsua eta zaparrada tartekatuen aukera izango da ipar-partean eta mendialdean; barnealdean, berriz, hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira, eta tarteka urdinguneak ikusiko ditugu.

ETZI



Berriz ere, Azoreetako antizikloiaren eragina medio, presio altuko gune bat Bizkaiko Golkoan kokatuko da. Hala, Atlantikotik etortzen diren fronte kateei harresiarena egin, eta horrela egonkortasun atmosferikoa bermatuko du lurralde osoan. Egunsentitik izotza, lanbroa eta behelainoa azalduko dira.

Tenperaturak

EUSKAL HERRIA	▽	△
Baiona	4	8
Bilbo	6	10
Donibane-Garazi	2	8
Donostia	6	8
Gasteiz	4	9
Iruñea	3	8
Maule	2	7

EUROPA	▽	△
Amsterdam	3	8
Atenas	11	17
Berlin	1	4
Bratislava	-2	4
Brusela	1	8
Budapest	0	2
Dublin	4	8
Erroma	9	15
Frankfurt	1	3
Geneva	1	3
Helsinki	0	4
Kopenhage	1	5
Lisboa	6	15
Londres	4	7
Madril	-2	7
Mosku	-6	1
Oslo	1	5
Paris	1	9
Praga	-2	4
Stockholm	1	4
Varsovia	1	3
Viena	1	3
Zurich	2	5

MUNDUA	▽	△
Beirut	11	13
Buenos Aires	21	30
Bogota	5	18
Caracas	22	32
Chicago	5	11
Habana	14	28
Kairo	14	22
La Paz	9	22
Los Angeles	11	24
Manila	20	27
Miami	19	26
Mexiko	8	15
New Delhi	9	15
New York	2	12
Pekin	3	15
Rabat	16	22
Rio de Janeiro	18	27
Tokio	9	15
Santo Domingo	21	31
Santiago	11	25
Sao Paulo	16	21
Washington	4	12

Eguzkia

Sortu 08:07
Gorde 17:51

Ilargia

ILBETE Azaroak 30
ILBEHERA Abenduak 7
ILBERRI Abenduak 14
ILGORA Azaroak 22

Itsasaldiak

ITSASGORA
Ordua 08:43 / 21:20
Metroak 3,17 / 2,89

ITSASBEHERA
Ordua 02:32 / 15:19
Metroak 1,68 / 1,62



Isobara mapa

Isobara mapak gaur arratsaldeko 13:00etarako adierazten duenez, Azoreetako Antizikloia hedatuko da, eta lurrazalean presio altuak eta egonkortasuna areagotzeko egoera indartuko da. Izan ere, presio altuko guneak harresiarena egin, eta Atlantikotik gerturatzen diren fronte kateei Bizkaiko Golkora sartzea eragozten die, eta Iberiako Penintsulara ez dira ailegatzen. Bestalde, Mediterraneoan egoera Antiziklonikoa nagusitzen den bitartean, Kontinenteko erdialdean eta goi-latitudeetan fronte kateak eta haize indartsua gailentzen dira.



Europa gaur

Kontinenteko egoera atmosferikoak argi eta garbi agertzen du giro nahasi eta aldakorra bere horretan egongo dela, ezegonkortasuna gailentzen doala, tenperaturaren beherakadarekin batera, Eskandinavian, Islandian eta Europako erdialdean. Gainontzeko tokietan hodeiak eta ostarteak agertzen dira, tenperatura epelekin batera. Atmosferako goi geruzetan den aire masa hotzaren nagusitasuna gero eta nabarmenagoa da bertan, eta bere eragina bistako da lurrazalean.

denbora-pasa

LUMA

Hitz gezidunak





Kate hitzak



7 letra
Adibide
~~Eskalea~~
Etxolak
Intxaur
Jauregi
Nardatu
Oskarbi
~~Sakelak~~
Sehaska
Zaplada

6 letra
Amorru
Ikerle
Izokin
Jendea

3 letra
Gor
Hor
Sua
Xai

5 letra
Akabu
Irina
Lauki
Paper
Pisua
Sagua
Saski
Sauna
Sortu
Tentu
Uluak
Urkia

AURREKO SOLUZIOAK

1. Golfa. 2. Itsuek. 3. Valentzia. 4. Ikasi. 5. Balet. 6. Australia. 7. Zaragoza. 8. Kleopatra. 9. Donostia. 10. Mozart.

E4722